

AZALPENA:

Plan Estrategikoan zehazten denez, (C.1.1 Estrategia) *“Egungo gizarteko dinamikak gainditzeko ezinbestekoa da hirian hezkuntza politikak aurrera eramatea, bakearen eta errespetuaren kulturaren eta pentsatzeko, sentitzeko eta diferente izateko modu eta ideologiak ontzat emateko kulturaren oinarritutako printzipioak haurtzarotik hasi eta gaztaroan sendotzeko. Baina erantzukizun guztia hezkuntza sistemari, ikastetxeei egoztea akatsa izango litzateke, beraz, kultura hau hiritar guztiengana zabaltzeko politikak bultzatu behar dira, euren hirikideen giza eskubideen defentsan parte aktibo izan daitezen.”*

Ingurumari honetan, **Giza Eskubideen Institutua** sortzea eta **balore horietan oinarritutako heziketa** ematea gizakiarenganako jarrera intolerante eta baztertzailerik aurre egiteko modurik eraginkorrena da.

HELBURUAK: C-1 helburuan eragiten du bereziki.: *“Donostian gizarte ireki eta solidarioa, bizitza eta giza eskubideen defentsarekin konprometitutako instituzio eta gizarte zibila dituen, elkarbizitza baketsua eta hiritar guztien integrazioa lortzea.”* Eta C.1.1 Estrategian ere bai, *“Donostiar guztien giza eskubideen errespetuaren eta bakearen kulturaren garrantzia areagotuko duten hezkuntza eta hiritar politikak bultzatu.”*

DESKRIPZIOA:

Gizarte kohesioa landu egin behar da, ez da bat-batean lortzen ezerezetik eta **lan hau beharrezkoa eta amaitezina da**. Ziurrenik, egiten dugun akats nagusienetakoa hauxe izango da: gure gizartean baloreen errespetuaren garrantzia, behin eta berriro eta belaunaldi guztietan zehar, azpimarratzeko beharra ez ikustea. Horregatik, Donostia balore hauen defentsan aitzindari bihurtu behar dugu, intolerantzia, erasoak,... atzean utzita. Bide beretik, gurea bezalako gizartean egin beharreko lanak giza eskubideak errespetatuko dituen gizartea eta giza eskubideen defentsan militantea izango den gizartea lortzen lagunduko digu. **Hitz bitan: hiri solidarioa.**

Behar honi aurre egiteko eta Donostiak bakearen alde egin duen apostua islatzeko nazioarteko baliabidea **Giza Eskubideen Institutua** (egoitza Aieteko Jauregian izan dezakeena) eta tolerantzia, errespetua, elkartasuna, gizalegea ... bezalako **Baloretan oinarritutako Heziketa** bultzatzeko jarduera lokalen egitaraua izango lirateke.